| | |
|---|---|
| **2013KO APIRILAREN 30EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 30 DE ABRIL DE 2013.** |
| **============================** | **============================** |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTE** |

Imanol Landa Jauregi jn.

| | |
|---|---|
| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ/PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ/PNV)
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV)

| | |
|---|---|
| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |

Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Marisa Arrue Bergareche (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Jesús Toca Toña (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Javier Ruiz Egaña (PP)
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP)
Fco. Javier Elorza Hormaeche (PP)
Ana Basilio Carnicer (PP)
Maitane Nerekan Umaran (BILDU)

Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU)
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU)
Roberto Martín Prieto (BILDU)
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE))
Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE))

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratsaldeko bostetan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diecisiete horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**37.- 2013KO MARTXOAREN 21EAN GETXOKO UDALBALTZAK EGINDAKO AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.**

2013ko martxoaren 21ean Getxoko Udalbatzak egindako aurreko ohiko bilkuraren Akta onartu zen.

**37.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 21 DE MARZO DE 2013.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 21 de marzo de 2013.

**LEHENDAKARITZA**

**38.- OTSAILAREN 28KO 1112/2013 DEKRETUAREN ETA APIRILAREN 15EKO 1768/2013 DEKRETUAREN**

**PRESIDENCIA**

**38.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA 1112/13 Y 1768/13, DE FECHAS 28 DE**

**BERRI EMATEA.**

Dekretuen berri emanda eta Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau adostu zen:

Otsailaren 28ko 1112/2013 dekretuaren eta apirilaren 15eko 1768/2013 dekretuaren jakitun egon. Hona haien xedapenak:

1112/2013 dekretuarena:

LEHENENGOA.- Ignacio Uriarte Gorostiaga Zinegotzi Jauna Ogasun, Sustapen Ekonomiko eta Giza Baliabideen Arloari atxikita Merkataritza, Turismo eta Enplegu Zerbitzuaren arduradun izendatzea.

BIGARRENA.- Ignacio Uriarte Gorostiaga Jauna 3221, 3223, 3238, 6223, 7001, 7510 eta 1212 gastu-programen Arduradun izendatzea. 1212 programa funtzionala sortu berria da eta ez da indarrean sartuko 2013ko Aurrekontuak onartu arte.

HIRUGARRENA.- Osoko Bilkuraren 2007ko uztailaren 6ko 115 zenbakidun erabakian xedatutakoaren arabera, eta Arlo baten mendeko Zerbitzuko Zinegotzi Ordezkari bezala, dedikazio partziala (%40) dagokio, 2013ko martxoaren 1etik aurrerako ondoreetarako.

LAUGARRENA.- Langileria Arloari honako erabakiaren berri ematea.

BOSGARRENA.- Udaleko Osoko Bilkurari honako erabakiaren berri ematea, Uriarte Jaunak aipatutako dedikazio partziala onartu duela adieraziz.

**FEBRERO Y 15 DE ABRIL, RESPECTIVAMENTE.**

Dada cuenta de los Decretos y a propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales, se acordó:

Quedar enterados de los Decretos de la Alcaldía nos. 1112/2013, de 28 de febrero y 1768/2013, de 15 de abril cuya parte dispositiva dice:

Nº 1112/2013:

PRIMERO.- Nombrar al Corporativo don Ignacio Uriarte Gorostiaga, Responsable del Servicio de Comercio, Turismo y Empleo, adscrito al Area de Hacienda, Promoción Económica y Recursos Humanos.

SEGUNDO.- Designar a don Ignacio Uriarte Gorostiaga, Responsable de los programas de gastos 3221,3223, 3238, 6223, 7001, 7510 y 1212. El programa funcional 1212 es de nueva creación y no entrará en vigor hasta la aprobación del Presupuesto del año 2013.

TERCERO.- De conformidad con lo dispuesto en el acuerdo plenario nº 115, de 6 de julio de 2007 y como Concejal Delegado de Servicio Dependiente de un Area, le corresponde una dedicación parcial (40%), con efectos desde el día 1 de marzo de 2013.

CUARTO.- Dar cuenta del presente acuerdo al Area de Personal.

QUINTO.- Dar cuenta del presente acuerdo al Pleno Municipal con indicación de la aceptación del señor Uriarte a la citada dedicación parcial.

1768/2013 dekretuarena:

I. taulari eta Komunikazio, Herritarren Arreta eta Babes Zibilari dagokionez, Arlo eta Zerbitzuetako Zinegotzi Arduradunak eta gastuen programen Arduradun politikoak izendatzen dituen Alkatetzaren ekainaren 27ko 3562/2011 Dekretua honela aldatzea

1.- Keltse Eiguren Alberdi Andrea Babes Zibileko 2230 gastuen programaren Arduradun Politiko izendatzea eta haren ordezko Ana Helguera Libano.

2.- Babes Zibileko Unitatean Babes Zibilaren beraren esparrua bide publikoaren esparrutik bereiztea; Babes Zibileko jardueren zuzendaritza, sustapena eta ikuskaritzaren arduradun titularra Keltse Eiguren Alberdi delarik eta haren ordezkoa Ana Helguera Libano, eta bide publikoko jarduerena, berriz, Josu Loroño Goienetxe eta haren ordezkaria izaten Kepa Miñambres Llonak jarraitzen duelarik.

Nº 1768/2013:

Modificar el Decreto de la Alcaldía nº 3562/2011, de 27 de junio relativo al nombramiento de Corporativos Responsables de Áreas o Servicios y de los Responsables políticos de los programas de gasto, en lo referido al Cuadro I y respecto al Área de Comunicación, Atención Ciudadana y Protección Civil, en el siguiente sentido

1.- Designar a doña Keltse Eiguren Alberdi, Responsable Político del programa de gasto 2230, Protección Civil y como su sustituta a doña Ana Helguera Libano.

2.- Diferenciar en la Unidad de Protección Civil el ámbito propio de Protección Civil de lo relativo a la vía pública, siendo responsable titular de la dirección, impulso e inspección de las actividades de Protección Civil, doña Keltse Eiguren Alberdi y su sustituta doña Ana Helguera Libano y de las actividades referentes a la vía pública, don Josu Loroño Goienetxe, manteniéndose como su sustituto a don Kepa Miñambres Llona.

**OGASUNA, KONTUAK, EKONOMIA-SUSTAPENA, GIZA BALIABIDEAK, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA EUSKARA**

**HACIENDA, CUENTAS, PROMOCIÓN ECONÓMICA, RECURSOS HUMANOS, EDUCACIÓN, JUVENTUD Y EUSKERA**

**39.- OSOKO BILKURAKO KONTRATAZIO-MAHAIKO KIDEAK ALDATZEKO, UDALEKO KONTRATAZIO-ORGANOA SORTZEKO, ETA OSOKO BILKURAREN ESKUMENEKO ESPEDIENTEEN ALDERAKO KONTRATATZEKO ARTEZPIDEAK ETA JARRAIBIDEAK ONARTZEA.**

**39.- MODIFICACIÓN DE LA COMPOSICIÓN DE LA MESA DE CONTRATACIÓN DE PLENO, CREACIÓN DE UN ÓRGANO EN EL ÁMBITO DE LA CONTRATACIÓN MUNICIPAL Y DIRECTRICES Y PAUTAS DE CONTRATACIÓN EN EXPEDIENTES DE COMPETENCIA PLENARIA.**

Proposamena irakurri ondoren, Alvaro Gonzalez jaunak esku-hartzen du eta adierazten proposamenaren xedea kontratazio-mahaiari gardentasun eta eraginkortasun handiagoa ematea dela eta, baita, kontratazio publikoan egin diren azken legezko erreformetara egokitzea ere.

Tras dar lectura a la propuesta interviene Alvaro González que indica que el objeto de la misma es dar mayor transparencia y eficiencia a la mesa de contratación así como adaptarse a las útlimas reformas legales habidas en la contratación pública.

Proposamena bozkatzen da eta onartu egiten da EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen aldeko 12 boto eta PP eta BILDU taldeen 12 abstentzio-boto lortzean.

Sometida la propuesta a votación es aprobada al obtener 12 votos a favor: PNV, PSE-EE Y 12 abstenciones PP, BILDU.

Horrenbestez Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau adostu zen:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

LEHENA.- 2011ko uztailaren 6ko 114 udalbatzaren akordioz izendatutako Getxoko Udaltzaren Kontratazio Mahaiaren osaera aldatzea; honela geratuko da eratuta:

PRIMERO.- Modificar la composición de la Mesa de Contratación del Pleno del Ayuntamiento de Getxo nombrada por Acuerdo Plenario nº 114 de fecha 06 de julio de 2011, quedará con la siguiente composición:

TITULARRAK

Lehendakaria: ALKATEA
Bokalak: UDALEKO ALDERDI POLITIKO BAKOITZEKO ORDEZKARIA. IDAZKARI NAGUSIA. UDALEKO KONTU HARTZAILEA
Idazkaria: ONDARE, KONTRATAZIO ETA EROSKETA UNITATEKO ARDURADUNA

T I T U L A R E S

Presidente: ALCALDE/ALCALDESA
Vocales: UN/A REPRESENTANTE DE CADA GRUPO POLÍTICO MUNICIPAL. SECRETARIO/A GENERAL. INTERVENTOR/A MUNICIPAL
Secretario: RESPONSABLE DE LA UNIDAD DE PATRIMONIO, CONTRATACIÓN Y COMPRAS

ORDEZKOAK
Lehendakariaren kasuan: KONTRATAZIO ZINEGOTZIA
Bokalen kasuan: UDALEKO ALDERDI POLITIKO BAKOITZEKO ORDEZKARIA. IDAZKARI NAGUSIAREN

S U P L E N T E S
Del Presidente: CONCEJAL/A DE CONTRATACIÓN
De los vocales: UN/A REPRESENTANTE DE CADA GRUPO POLITICO MUNICIPAL. FUNCIONARIO /ASUPLENTE DEL/LA SECRETARIO/A GENERAL.

FUNTZIOARIOA/ORDEZKOA.
KONTU HARTZAILEAREN FUNTZIONARIOA/ORDEZKOA
Idazkariaren kasuan: KONTRATAZIO TEKNIKARIA

BIGARRENA.- Administrazio-organo izendatzea ONDARE, KONTRATAZIO ETA EROSKETA ARDURADUN lanpostua betetzen duen pertsonari, jarraian adierazitako terminoetan:

- Getxoko Udalean sartzeko modua eta hango hierarkia-mendekotasuna oraingoak bezalakoak izango dira (ados daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe).
- Funtzioak eta gaitasunak, dagokion Kontratazio Mahaiaren ordezkaritzaren aurretik:
- Lehenengo gutun-azala zabaltzea "DOKUMENTU OROKORRAK" izenekoa, akatsak zuzentzeko eskakizunak eta dokumentazio eta kaudimen horren kalifikazioa.
- Bigarren gutun-azala zabaltzea "AUTOMATIKOKI EBALUA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK" izenekoa, eta horiek baloratzeko zerbitzu proposamengileari bidaltzea.
- Ez da beharrezkoa kreditu-zuzkidura berria egitea, hura martxan eta funtzionamenduan jartzeko.

HIRUGARRENA.- Kontratazio Mahaiaren osaera argitaratzea, baita lehen adierazitako administrazio-organoaren osaera ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

LAUGARRENA.- Udaleko Sailek eta Erakundeek jarraitu beharreko irizpideak eta jardunbideak onartzea, udalbatzaren eskumeneko ohiko izapidetze-kontratuetan.

FUNCIONARIO/A SUPLENTE DEL INTERVENTOR/A
Del Secretario: TÉCNICO/A DE CONTRATACIÓN

SEGUNDO.- Nombrar como órgano administrativo a la persona que sea titular en cada momento del puesto de trabajo de RESPONSABLE DE PATRIMONIO, CONTRATACIÓN Y COMPRAS, en los términos señalados a continuación:

- Su forma de integración y su dependencia jerárquica en el Ayuntamiento de Getxo será el actual (sin perjuicio de la modificaciones que a tal efecto puedan acordarse).
- Funciones y competencias, previa delegación de la correspondiente Mesa de Contratación:
- Apertura del sobre primero "DOCUMENTACIÓN GENERAL", requerimientos de subsanaciones y calificación de dicha documentación y solvencia.
- Apertura del sobre segundo "CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA" y remisión al servicio proponente para su valoración.
- No se considera necesaria la nueva dotación de créditos para su puesta en marcha y funcionamiento.

TERCERO.- Publicar la composición de la Mesa de Contratación así como la creación del órgano administrativo que anteriormente se han indicado, en el Boletín Oficial de Bizkaia.

CUARTO.- Aprobar los criterios y pautas de actuación a seguir en lo sucesivo por los Departamentos y Organismos municipales en los contratos de tramitación ordinaria de

competencia plenaria.

Hona hemen jarraibideak eta irizpideak:

Tales pautas y criterios son los siguientes:

4.1.- Tokiko Gobernu Batzarraren Kontratazio Mahaiak laguntza emango dio kontratazio-organo horri, legeak agintzen duen kasuetan bakarrik, hau da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 177.1 artikuluak jasotako Prozedura Irekietan, Murriztuetan eta Publizitate bidezko Negoziatuetan.

4.1.- La Mesa de Contratación de Junta de Gobierno Local prestará asistencia a dicho órgano de contratación, únicamente en aquéllos supuestos en los que sea legalmente preceptivo, a saber, en los Procedimientos Abiertos, en los Restringidos y en los Negociados con publicidad a que se refiere el artículo 177.1 TRLCSP.

Edonola ere, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan, Kontratazio Organoak erabaki dezake Kontratazio Mahaiak prozedura haietan parte hartuko duela, kontratazio-espedientea abiaraztea agintzen duen Sailaren edo Unitatearen proposamen arrazoitua ikusi eta gero. Egoera hori espresuki jasota geratuko da kontratu-espedientearen Klausula Ekonomikoaren eta administratiboen Pleguan.

No obstante, en los procedimientos negociados sin publicidad el órgano de contratación podrá decidir la participación en los mismos de la Mesa de Contratación, a la vista de propuesta justificada del Departamento o Unidad que insta la incoación del expediente de contratación. Tal circunstancia se hará constar expresamente en el Pliego de Cláusulas Económico-administrativas del correspondiente expediente contractual.

4.2.- ONDARE, KONTRATAZIO ETA EROSKETA ARDURADUNAREN ordezkaritzatik salbu, gutun-azalak zabaltzeko jarraitu beharreko jarduera-prozedurak, udal-lizitazioetara aurkeztuko diren eskaintzetan jasotakoak, honako hauek dira:

4.2.- A salvo de la posible delegación en la RESPONSABLE DE PATRIMONIO, CONTRATACIÓN Y COMPRAS, el procedimiento de actuación a seguir en cuanto a la apertura de los sobres, de que constan las ofertas que se presentan a las licitaciones municipales será el siguiente:

Kontratazio Mahaiak zabalduko du dokumentu orokorrei buruzko gutun-azala, eskaintzak aurkezteko epea amaitzerakoan.

La apertura del sobre relativo a Documentación General se efectuará por la Mesa de Contratación tras la finalización del plazo de presentación de ofertas.

Eskaintza-kopurua edo aurkeztu diren agiri-kopurua edo –konplexutasuna ikusita, Mahaiak dokumentuak kalifika ditzake, gutun-azalak zabaltzerakoan bertan, edo kalifikazio hori hurrengo

A la vista del número de ofertas existentes o del número o complejidad de los documentos presentados, la Mesa podrá proceder a la calificación de la documentación en el mismo

kontratazio-mahairako utzi.

momento de la apertura de los sobres o posponer dicha calificación a la siguiente mesa de contratación que se celebre.

Dokumentazio teknikoa duen gutun-azala (modu ez-automatikoan ebalua daitezkeen irizpideak) jendaurrean zabalduko da, dokumentazio orokorra kalifikatu denean, eta, gero, lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak zenbatuko dira eta dagokion Zerbitzuari edo Sailari igorriko zaizkio, balora dezaten.

El sobre conteniendo la documentación técnica (criterios evaluables de forma no automática) se abrirá, en acto público, una vez calificada la documentación general, procediéndose a continuación a foliar la documentación presentada por los licitadores y remitiéndose la misma al Servicio o Departamento correspondiente para su valoración.

Balorazio hori lehenbailehen egin beharko da, dagokion txostena bidalita (Aditu Batzordeak lege-aginduz egindako balorazioetan izan ezik).

Dicha valoración habrá de realizarse en el plazo más breve posible, emitiéndose el correspondiente informe (salvo los casos en que la valoración se realice, por prescripción legal, por un Comité de Expertos).

Lehen adierazitako bi gutun-azalak aztertu eta/edo baloratu eta gero, Kontratazio Mahaiak automatikoko ebalua daitezkeen irizpideen gutun-azala zabalduko du, jendaurrean.

Una vez analizados y/o valorados los otros dos sobres antedichos, la Mesa de Contratación abrirá el sobre de los criterios evaluables de forma automática en acto público

Gero, Mahaiak esleipen-proposamena igorriko dio Kontratazio Organo eskudunari.

Posteriormente, la Mesa elevará la oportuna propuesta de adjudicación al Órgano de Contratación competente.

4.3.- Baina Sailak edo Unitateak automatikoko ebalua ezin daitezkeen balorazio-irizpideak proposatzen baditu eta automatikoki ebalua daitezkeen irizpideei baino haztapen handiagoa egozten badie (kasu horretan, Adituen Batzordeak egin behar du eskaintzen balorazio teknikoa, aginduz), proposamena justifikatu beharko du, behar bezala, dagokion txostena igorrita.

4.3.- Ahora bien, cuando el Departamento o Unidad proponga unos criterios de valoración no automáticamente evaluables a los que atribuya una ponderación superior a la de los criterios evaluables de forma automática (supuesto este en el que la valoración técnica de las ofertas ha de hacerse, preceptivamente, por un Comité de Expertos), justificará adecuadamente tal propuesta, mediante la emisión del correspondiente informe.

4.4.- Kontratazio espedientea abiarazteko agindua ematen duten Sailek, Unitateek edo Zerbitzuek behar bezala beteta eta sinatuta bidali beharko diote Kontratazio Zerbitzuari 3.2-1 eredu normalizatua.- eskaera-orria, alegia, une bakoitzean Udal honetako Intranet orrian jasota datorrena.

Kontratazio Zerbitzuak egunera dezake eredu edo inprimaki hori, egoerek gomendatzen badute, betiere; helburu horretarako, behar bezala aldatuko da, eta Sail ezberdinen eskura jarriko, Udaleko intranet orrian.

Dekretuaren beste ataletan espresuki aipatzen diren txostenez gain, eskaera-orriarekin batera dokumentazio tekniko osoa bidali beharko da kontratazio Zerbitzura, espedientea izapidetze aldera, baita behar diren txosten teknikoak ere, hala nola kasu bakoitzean proposatu diren balorazio-irizpideak arrazoitzeko txostenak, beharrari eta egokitasunari buruzko txostena, eta segidako tartea dela arrazoitzen duen txostena, hala badagokio.

Bestalde, agindutako kontratazioaren jarduera-xedeari aplikatu beharreko BEZ mota zehaztuko da. Hau da: lizitazioaren prezioa adieraziko da, eta zenbatekoa eta BEZ-mota aparte jasoko dira.

4.5.- Kontratazio-espedienteak izapidetzeko Kontratazio Zerbitzuari nahitaez igorri beharreko Baldintza Teknikoen Pleguak baldintza hauek bete beharko ditu:

4.4.- Los Departamentos, Unidades o Servicios que insten la incoación de un expediente contractual, han de cumplimentar y remitir debidamente firmado al Servicio de Contratación, el modelo normalizado 3.2-1.- Hoja de Solicitud- que en cada momento figure en la página de Intranet de este Ayuntamiento.

Dicho modelo o formulario podrá ser actualizado por el Servicio de Contratación cuando las circunstancias así lo aconsejen, a cuyos efectos el mismo será modificado oportunamente y puesto a disposición de los diferentes Departamentos en la página de Intranet municipal.

Además de los informes expresamente citados en otros apartados del presente decreto, junto con la Hoja de Solicitud mencionada habrá de remitirse al Servicio de Contratación toda la documentación técnica que se precise para la tramitación del expediente, incluyendo cuantos informes técnicos sean necesarios, a saber, aquel que justifique los criterios de valoración propuestos en cada caso, el informe de necesidad e idoneidad, el informe que justifique, en su caso, que se trata de una prestación de tracto sucesivo, etc.

Por otra parte, se incluirá indicación específica del tipo impositivo de I.V.A. aplicable a la actividad objeto de la contratación que se insta. Es decir: se señalará el precio de licitación con indicación expresa del importe y tipo de I.V.A. de forma separada.

4.5.- El Pliego de Condiciones Técnicas que preceptivamente habrá de ser remitido al Servicio de Contratación para la tramitación de los expedientes de contratación habrá de reunir los

- Herri Administrazioen Kontratu Legearen Araubide Orokorraren 68. artikuluan zehaztutako gutxienekoa bildu beharko du.
- Teknikari eskudunak sinatu beharko du, dagokion Sailaren edo Unitatearen zinegotzi arduradunaren oniritziarekin.
- EAEko bi hizkuntza ofizialetan itzulita bidali beharko da.
- Kontratazio Zerbitzuari bidali beharko zaio, formatu elektronikoan. Obra-kontrataziorako espedienteen kasuan, Kontratazio Zerbitzuari egikaritzapeneko proiektu teknikoaren bi ale igorriko zaizkio, paperean, bata, eta formatu elektronikoan, bestea. Bi ale baino gutxiago bidaltzen badira, Kontratazio Zerbitzuak dagokion Sailari edo Unitateari eskatuko dio falta den alea bidal dezala. Alderantziz, Kontratazio Zerbitzuak adierazitakoak baino ale gehiago bidaltzen baditu, soberako aleak igorleari itzuliko zaizkio.

siguientes requisitos:
- Habrá de tener el contenido mínimo fijado en el artículo 68 del RGCAP.
- Habrá de estar firmado por el técnico competente, con el Visto Bueno del Concejal Responsable del Departamento o Unidad de que se trate.
- Habrá de enviarse traducido a los dos idiomas oficiales de la C.A.P.V.
- Habrá de remitirse al Servicio de Contratación en formato electrónico. En los expedientes para la contratación de obras, se remitirán al Servicio de Contratación dos ejemplares del proyecto técnico de ejecución, uno de ellos en papel y el otro en formato electrónico. Si se remitieran menos de dos ejemplares, el Servicio de Contratación requerirá al Departamento o Unidad correspondiente el envío del ejemplar que falte. Si, por el contrario, se remiten al Servicio de Contratación más ejemplares de los indicados, el o los ejemplares que sobren serán devueltos a su remitente.

4.6.- Lizitatzaileei Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 103. artikuluak jasotako "behin-behineko bermea" eska dakieke, kontratu-espediente bakoitzean, kasu bakoitzean ematen diren egoerak aintzat hartuta.

Kontratazioa agintzen duen Sailak edo Unitateak emango du egoera horien berri, eta Kontratazio Zerbitzuak baloratuko ditu.

Behin-behineko bermea eskatzea komeni dela erabakitzen bada, egoera hori espresuki jasota geratuko da Administrazio Pleguan.

4.6.- La "garantía provisional" a que se refiere el artículo 103 TRLCSP podrá exigirse a los licitadores en cada expediente contractual en consideración a las circunstancias concurrentes en cada supuesto concreto.

Tales circunstancias serán informadas por el Departamento o Unidad que inste la contratación y serán valorados por el Servicio de Contratación.

En caso de determinarse la conveniencia de exigir garantía provisional, tal circunstancia se recogerá de forma expresa en el correspondiente Pliego administrativo.

4.7.- Baldintza Teknikoen Pleguan eta Klausula Ekonomiko-administratiboen Pleguan desadostasunak ematen badira, azken hori nagusituko da, eta egoera espresuki jasota utziko du. Ahal den guztietan, gehiegizko erredundantziak saihesteko, Klausula Ekonomiko-administratiboen Pleguak aintzat hartuko du Klausula Teknikoen Pleguak jasotakoa.

4.7.- En caso de discordancia o discrepancia entre el Pliego de Prescripciones Técnicas y el Pliego de Cláusulas Económico-Administrativas, prevalecerá éste último, el cuál recogerá expresamente tal circunstancia. En aquellas cuestiones que sea posible, y para evitar redundancias innecesarias el Pliego de Cláusulas Económico – Administrativa se remitirá a lo recogido en el Pliego de Cláusulas Técnicas.

4.8.- Aurkeztu diren eskaintzen balorazio teknikoko txostenak horiek prestatu dituen teknikariak sinatu beharko ditu baita ere, eta Saileko arduradun teknikoaren oniritzia jaso beharko dute.

4.8.- Los Informes Técnicos de Valoración de las ofertas presentadas deberán estar firmados por el Técnico que los elabore y con el Visto Bueno del responsable técnico del Departamento.

4.9.-Klausula ekonomiko-administratiboen pleguak espresuki jasota utziko du automatikoko ebalua ezin daitezkeen irizpideen balorazioan aurreikusitako gehienezko puntuazioaren % 25 betetzen ez duten eskaintzak lizitazio-prozesutik kanpo utziko dituela Udalak (irizpide automatikoei buruzko puntuazioa kanpo).

4.9.-El Pliego de cláusulas Económico-Administrativas contendrá mención expresa de que el Ayuntamiento excluirá del proceso de licitación aquéllas ofertas que en la valoración de los criterios evaluables de forma no automática no alcancen el veinticinco por ciento de la puntuación máxima prevista (excluida la puntuación referida a los criterios automáticos).

Kontratazioa agindu duen Sailak arau orokor horretatik aldentzea egoki baderitzo, txosten egiaztagiria igorri beharko du, ildo horretatik.

En caso de que el Departamento que insta la contratación considere oportuno apartarse de dicha norma general habrá de emitir el correspondiente informe justificativo en tal sentido.

Publizitaterik gabe negoziatu diren prozeduretan, berriz, ezingo da jaso aurreko paragrafoetan jasotako salbuespena.

En los procedimientos negociados sin publicidad no podrá incluirse la exclusión referida en los anteriores párrafos.

4.10.- Lizitatzaileek eskaintzak aurkezteko izapideak errazte aldera, Klausula ekonomiko-administratiboen plegutik puntu bat kendu da, hirugarren batek eskuordetutako

4.10.- En aras a la simplificación en los trámites a realizar por los licitadores a la hora de presentar sus ofertas, desaparece del Pliego de cláusulas Económico-Administrativas, el punto

kasuetan, eskaerekin batera behar bezala askietsitako ahalmena aurkezteko betebeharra, alegia. Hemendik aurrera, ordezkaritza-ahalmen hori nahikoa izatea eskatuko da, bakarrik, lege-helburuetarako (ahalmen nahikoa). Ordezkaritza-ahalmen askietsia esleipenduna izan den lizitatzaileari bakarrik (lege-ordezkari baten bitartez jardun badu, betiere) eskatuko zaio, dagokionean bakarrik.

referido a la obligación de aquéllos que acudan representados por una tercera persona, de presentar junto con sus ofertas un poder debidamente bastanteado. A partir de ahora, se requerirá únicamente que tal poder de representación resulte suficiente a efectos legales (poder bastante). El bastanteo del poder de representación se exigirá, si se considera oportuno, sólo al licitador que resulte adjudicatario (si es que hubiera actuado por medio de representante legal).

4.11.- Prozedura Negoziatuen izapidetzean, arau ezberdinak hartu beharko dira aintzat:

4.11.- En la tramitación de los Procedimientos Negociados, habrán de observarse las siguientes reglas:

4.11.1. Negoziatu beharreko aspektuak behar bezala zehaztuko ditu kontratazioa agindu duen Sailak edo Unitateak.

4.11.1. Los aspectos a negociar se especificarán adecuadamente por el Departamento o Unidad que inste la contratación.

4.11.2. Negoziatu beharreko alderdia ekonomikoa bakarrik denean, Kontratazio Zerbitzuko teknikari batek egingo ditu negozio-lanak, dagokion Sailak zehaztutako teknikariarekin batera. Edonola ere, teknikariaren laguntza/parte-hartzea albo batera utzi daiteke, Kontratazio Zerbitzuaren beraren erabakiz.

4.11.2. Cuando el aspecto a negociar sea únicamente el económico, las actuaciones de negociación se realizarán por un técnico del Servicio de Contratación junto con un técnico que al efecto señale el Departamento correspondiente. No obstante, la asistencia/participación de dicho técnico podrá obviarse a criterio del propio Servicio de Contratación.

Negoziatu beharreko muturrak kontratuaren aspektu teknikoak direnean (edo haren erabakiaren mendeko auziei badagokie, adibidez, ordainketa-modua edo -epean negoziatzea), kontratazioa agindu duen Saileko edo Unitateko teknikariak negoziatuko du; dena den, Kontratazio Zerbitzuko teknikari bat bertaratuko da negoziazio-jardueretara.

Cuando los extremos a negociar sean los técnicos del contrato (o bien a cuestiones que dependan de su decisión, como puedan serlo, por ejemplo, la negociación sobre forma o plazos para el pago) la negociación se realizará por el técnico del Departamento o Unidad que haya instado la contratación, si bien a las actuaciones de negociación asistirá un técnico del Servicio de Contratación.

4.11.3 Publizitate bidezko Prozedura

4.11.3 En los Procedimientos

Negoziatuetan, Kontratazio Mahaiak berak, kontratazio Zerbitzuko teknikariek eta/edo dagokion Saileko zerbitzu-teknikariek eramango dituzte aurrera negoziazio-jarduerak, dagokion kudeaketa-mandatua eman eta gero.

Negociados con publicidad, las actuaciones de negociación se llevarán a cabo por la propia Mesa de Contratación, o bien por los técnicos del Servicio de Contratación y/o los técnicos del servicio del Departamento correspondiente, previa la correspondiente encomienda de gestión por parte de aquélla.

4.11.4 Publizitaterik gabeko Prozedura Negoziatuetan, kontratazioa agindu duen Unitateak edo Zerbitzuak hiru erakunde proposatuko ditu, gutxienez, izapidetzera bertaratzeko; dena den, Kontratazio Zerbitzuak izen bat edo gehiago erants ditzake zerrendara, kasu bakoitzean ematen diren egoeren arabera badagokio, betiere.

4.11.4 En los Procedimientos Negociados sin Publicidad, el Departamento, Unidad o Servicio que inste la contratación propondrá al menos tres entidades a invitar para la oportuna tramitación, si bien el Servicio de Contratación podrá añadir uno o más nombres a dicho listado, si las circunstancias concurrentes en cada caso concreto así lo aconsejasen.

4.11.5. Eskaintzak aurkezteko lizitatzaileei emandako epeari buruz Legeak ez dio ezer, berariaz, prozedura negoziatuen kasuan. Beraz, dagokion Sailak adieraziko dio Kontratazio Zerbitzuari gonbidapenetan zehaztu beharreko lizitazio-epea, arrazoizkoa, lizitatzaileek eskaintza behar bezala idatz dezaten.

4.11.5. El plazo que se concede a los licitadores para la presentación de ofertas no se halla específicamente establecido por la ley en el caso de los procedimientos negociados. Ello así, será el Departamento correspondiente el que indique al Servicio de Contratación el plazo de licitación a fijar en las invitaciones, habiendo de ser el mismo el razonable para que los licitadores redacten adecuadamente su oferta.

Bestalde, Administrazio Pleguan jasota geratuko da eskaintzak aurkezteko epea gonbidapenetan adieraziko dela. Epe hori zabal daiteke, berariaz, eta horren berri emango zaie, behar bezala, gonbidapena bidali zaien lizitatzaileei.

Por otro lado, en el Pliego Administrativo correspondiente se hará constar que tal plazo de presentación de ofertas será el indicado en las invitaciones. Dicho plazo podrá ser ampliado, de forma expresa, circunstancia de la cual se informará debidamente a los licitadores a los que se haya cursado invitación.

BOSGARRENA.- Udaleko sailei ebazpenaren berri ematea, beren ezagupenerako eta izan behar dituen

QUINTO.- Dar traslado de la presente resolución, para su conocimiento y efectos, a los distintos departamentos

ondorioetarako.

municipales.

**40.- GETXOKO UDAL ERAIKINEN BARRUALDEEN GARBIKETAKO ZERBITZUA: KONTRATUA ALDARAZTEA.**

**40.- MODIFICACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIOS DE LIMPIEZA INTERIOR EN LOS EDIFICIOS MUNICIPALES.**

Proposamena irakurri ondoren, Alvaro Gonzalez jaunak esku-hartzen du. Proposamen hori administrazio-unitate desberdinen lekualdatzearen eta bi udal-langileren erretiroaren harian egiten da. Langile horien lanpostuak desagertu egingo dira sindikatuekin hitzartutako planaren arabera.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Alvaro González que explica que la propuesta se debe al traslado de dependencias de diferentes unidades administrativas y también a la jubilación de dos empleadas municipales cuyas plazas estaban declaradas a extinguir en el plan de empleo pactado con los sindicatos.

Maitane Nerekan andreak adierazten du BILDU taldea proposamenaren aurka dagoela eta, baita, azpikontratazioa aurreikusten duten haien guztien aurka ere, horiek kalitate txikiko enpleguak sortzen baitituzte eta enplegu publikoa erasotzen baitute. Gainera, kasu honetan, areago, erretiroa hartzen duten udaleko bi langile azpikontratatutako zerbitzuen bidez ordezkatzen baitira eta horrek ez du zentzurik Getxon dagoen langabezia-tasa eta Getxolan-i suspertze ekonomikoari dagokionez esleitzen zaizkion funtzioak kontuan hartzen badira.

Maitane Nerekan manifiesta que BILDU se opone a la propuesta como se opone a todas aquellas que contemplan subcontrataciones ya que éstas generan empleos de baja calidad y atentan contra el empleo público. Además en este caso se acentúa el tema porque se sustituyen dos empleadas del Ayuntamiento que se jubilan por servicios subcontratados lo que parece un contrasentido teniendo en cuenta el paro que existe en Getxo y también con las funciones que se asignan a Getxolan en relación con la reactivación económica.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du BILDU taldearen demagogiaren aurrean esku hartu beharrean sentitu dela, udal-azpikontrataziorik handienari, zabor-bilketarenari, beren babesa eman ziela gogorarazteko.

Eduardo Andrade indica que ante la demagogia de BILDU se ha visto obligado a intervenir para recordar que apoyaron la mayor subcontrata municipal que es la de recogida de basura.

Maitane Nerekan andreak erantzuten dio nabarmena dela Talde Popularrarekin duten komunikazio-arazoa, arazo linguistikoaz gain; garbi

Maitane Nerekan le replica que parece evidente el problema de comunicación que tienen con el Grupo Popular además del problema lingüístico, que se

ikusten baita zaborren garbiketa-kontratuaren gaia landu zen Osoko Bilkuraren aktak irakurri dituzten edo ez; izan ere, bertan, BILDU taldea abstenitu egin zen.

ve de manera clara si se leen las actas del Pleno en el que se trató el tema del contrato de limpieza de basuras en el que BILDU se abstuvo.

Eduardo Andrade jaunak BILDU taldearen abstentzioak Gobernu-Taldearen proiektuen onarpena dakartela erantzuten dio.

Eduardo Andrade replica que la abstención de BILDU supone la aprobación de los proyectos del Equipo de Gobierno.

Proposamena bozkatzen da eta onartu egiten da EAJ-PNV taldearen aldeko 10 boto, BILDU taldearen aurkako 3 boto eta PP eta PSE-EE taldeen 11 abstentzio-boto lortzean.

Sometida la propuesta a votación es aprobada al obtener 10 votos a favor: PNV, 3 votos en contra BILDU, 11 abstenciones PP, PSE-EE.

Horrenbestez Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau adostu zen:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

LEHENENGOA: Espedientea abiarazteko baimena ematea eta Osoko Bilkuraren 2009ko abenduaren 23ko Erabakiaren bidez A4890389-2 zenbakidun IFK daukan INBISA, SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE S.A. enpresari (aurrez URAZCA, SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE S.A.) esleitutako Getxoko udal eraikinen barruko garbiketa zerbitzuen kontratuaren aldaketa onartzea.

PRIMERO: Autorizar el inicio del expediente y aprobar la modificación del contrato de servicios de limpieza interior en los edificios municipales de Getxo, adjudicado a la mercantil "INBISA SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE S.A." (anteriormente denominada "URAZCA, SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE, S.A."), con C.I.F. A4890389-2, por Acuerdo Plenario de fecha 23 de diciembre de 2009.

Kontratuan egin beharreko aldaketa da, garbitu beharreko azalera handitzea, alde batetik, eta murriztea, bestetik; aldaketa horrek esleipenaren zenbatekoa urteko 16.542,29 euroan gehitzen du, gehi BEZari dagokion %21.

La modificación a efectuar en el contrato consiste en la ampliación, por un lado y en la reducción, por otro, de la superficie a limpiar, dando lugar a un incremento total del importe de adjudicación de 16.542,29 euros/año, más el I.V.A del 21%.

Aldaketaren ondorioz, kontratuaren prezioa honela geratzen da:

Como resultado de la anterior modificación, el precio del contrato queda como sigue:

Urteko 1.021.444,08 euro gehi BEZaren %21ari dagozkion 214.503,26 euro, Getxoko Udalari atxikitako eraikin eta bulegoen barruko garbiketaren zerbitzuengatik.

1.021.444,08 euros anuales más 214.503,26 euros correspondiente al 21% del I.V.A., por la prestación de los servicios de limpieza interior de los edificios y dependencias adscritos al Ayuntamiento de Getxo.

Urteko 177.348,43 euro gehi BEZaren %21ari dagozkion 37.243,17 euro, agirian aurreikusi gabeko aparteko garbiketa eta lan zehatzengatik; lan horiek administrazioaren beharren araberakoak izango dira. Lan horiek esleipendunak eskainitako prezio unitarioen arabera ordainduko dira eta horiek eraenduko dute kontratuak irauten duen bitartean garbiketa berezien edo apartekoen kalkulua.

177.348,43 euros anuales más 37.243,17 euros correspondientes al 21% del I.V.A. para la realización de limpiezas extraordinarias o trabajos puntuales no previstos en el pliego, cuya realización queda sujeta a las necesidades de la administración. Estas labores se abonarán de acuerdo con los precios unitarios ofertados por el adjudicatario que regirán durante la ejecución del contrato para el cálculo de las limpiezas especiales o extraordinarias.

BIGARRENA: Kontratuaren aldaketari aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea, urteko gehienez 20.016,17 eurokoa.

SEGUNDO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a la modificación del contrato de referencia, por un importe máximo total de 20.016,17 euros/año.

HIRUGARRENA: Esleipendunak bere garaian eratutako behin betiko bermea doitu beharko du 827,11 eurorekin, honako erabakia jakinarazten denetik 15 eguneko epearen barruan.

TERCERO: El adjudicatario deberá reajustar en 827,11 euros la garantía definitiva en su día depositada, en el plazo de 15 días contados desde la notificación del presente acuerdo.

LAUGARRENA: Proposatutako aldaketa agiri administratiboan formalizatuko da, honako ebazpena esleipendunari jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita, 10 egun baliodunen epearen barruan.

CUARTO: La modificación propuesta se formalizará en documento administrativo, dentro del plazo de 10 días hábiles a contar desde la notificación a la adjudicataria de la presente resolución.

**41.-UDAL-DIRUZAINTZAREN HIRUHILEKO TXOSTENA ETA KONTU-HARTZAILE OROKORRAK EGINDAKO FAKTUREN ZERRENDA, 15/2010 LEGEAREN LAUGARRENA.3 ETA BOSGARRENA.4 ARTIKULUETAN**

**41.- INFORME TRIMESTRAL DE LA TESORERA MUNICIPAL Y RELACIÓN DE FACTURAS EMITIDA POR LA INTERVENTORA GENERAL EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN LOS ARTÍCULOS CUARTO.3 Y QUINTO.**

**XEDATUTAKOA BETEARAZIZ (2013KO 1. HIRUHILEKOA).**

Proposamena irakurri ondoren, Eduardo Andrade jaunak esku hartzen du. 2013ko lehenengo hiruhilekoan legea ez dela bete fakturen %39,25ean ikusten du, iazko aldi berdinean, berriz, %14ko ez-betetzea eman zen. Zenbatekoei dagokienez, epez kanpoko ordainketa 2012ko lehenengo hiruhilekoan %7,43koa izan zen eta, aurten, fakturen %30a, dirutan, 3.200.000€. Berandu ordaindutako faktura horien atzean familiak, enpresak eta langile autonomoak daudela azpimarratzen du. Gobernu-taldeari epean ordaintzeko ahalegina egitea eskatzen dio eta Ogasun Arloko zinegotzi andreari egoera hori errepikatu ez dadin zer-nolako neurriak hartu behar dituen galdetzen dio.

Ana Helguera andreak adierazten du denbora asko ez dela PP alderdiaren gobernuak ordainketa-epea aldatu duela eta araudi hori ekitaldi honetan fakturen %100ean bete dela, hartutako arintze-neurriei esker. Aurkeztu zirenetik 60 eguneko epea gainditu duten 30 faktura daudela aitortzen du, %1a, hain zuzen ere, baina, batez ere, fakturetan bertan dauden akatsen ondorioz gertatu dela hori. Bere esku-hartzea amaitzen du administrazio-prozesu honetan parte hartu duten udal-langileei zorionak emanez.

Bingen Saitua jaunak adierazten du fakturak epez kanpo ordaintzen jarraitzen dela eta fakturei dagozkien 10 milioi eurotatik 3 aurkeztu zirenetik 30 eguneko epetik kanpo ordaindu direla; beraz, Gobernu-Taldeak bere funtzionamendua hobetu beharra duela aitortu behar duela.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du

**4 LA LEY 15/2010 (1º TRIMESTRE DE 2013).**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Eduardo Andrade que observa que en este primer trimestre del 2013 se ha incumplido la ley en el 39,25% de las facturas frente al incumplimiento del 14% que se dio en el mismo periodo del año anterior. En relación a los importes, el pago fuera de plazo en el primer trimestre del año 2012 fue 7,43% y este año el 30% de las facturas que han ascendido a 3.200.000€. Insiste que detrás de esas facturas tardíamente pagadas se encuentran familias, empresas y autónomos. Pide al Equipo de Gobierno que se haga un esfuerzo para pagar en plazo y pregunta a la Concejala de Hacienda qué medidas va a adoptar para evitar que se repita esta situación.

Ana Helguera indica que recientemente el Gobierno del PP ha modificado el plazo del pago y que esa nueva normativa se ha cumplido en el 100% de las facturas en este ejercicio gracias a las medidas adoptadas de agilización. Reconoce que existen 30 facturas por importe del 1% que han superado el plazo de 60 días desde la presentación pero que es debido básicamente a errores en las mismas. Finaliza su intervención felicitando a los trabajadores municipales que han intervenido en este proceso administrativo.

Bingen Saitua indica que se continúa pagando facturas fuera de plazo y de 10 millones de euros en facturas 3 se han pagado fuera del plazo de 30 días desde su presentación y que el Equipo de Gobierno tiene que admitir que tiene que mejorar su funcionamiento.

Eduardo Andrade indica que el informe

Diruzainaren txostenean ez dela zinegotziak adierazitakoa jasotzen, beti bezala, erantzukizunak beste Arloei igortzen dizkiela.

Ana Helguera andreak adierazten du Diruzainaren txostenean 4/2013 Errege Dekretua onartu dela, horrek epeak aldatzen dituela eta legez ezarritakoa bete dela jasota dagoela. Amaitzen du, adieraziz, fakturak onartu eta 2/3 egunetan ordaindu ohi direla eta, normalean, ez dela horretarako aurreikusitako 30 eguneko epea gainditzen.

de la Tesorera no recoge lo que manifiesta la Concejala que vuelve, como siempre, a remitir las responsabilidades a otras áreas.

Ana Helguera manifiesta que dentro del informe de la Tesorera viene recocido cómo se ha aprobado el Real Decreto 4/2013 que altera los plazos y que con ellos se ha cumplido lo legalmente indicado. Finaliza indicando que habitualmente en un plazo de 2 o 3 días desde que se aprueban las facturas se procede a pagar y que normalmente no pasa del plazo de 30 días.

Bingen Saitua jaunak behin eta berriz adierazten du Diruzainaren txostenean epea bete ez duten 303 faktura daudela, behar bezala igorri ez diren beste 30 faktura egoteaz gain. Iaz, denboraldi berdinean fakturak, bataz beste, 40 egunera ordaintzen zirela eta fakturen %7,4ak ez zuela epea betetzen; egun, fakturen %16a baino gehiago 40 egunera baino beranduago ordaintzen dela eta horrek kudeaketak okerrera egin duela agerian uzten duela. Horregatik, BILDU taldearen izenean, ordainketa-epeak errespetatzeko eskatzen du.

Bingen Saitua insiste en que el contenido del informe de la Tesorera hay 303 facturas que no han cumplido el plazo, además de que existan 30 facturas que pudieran no estar correctamente emitidas. Indica que el año pasado en el mismo tiempo se pagaba a 40 días de media y se incumplía el plazo en un 7,4% y actualmente hay más del 16% de facturas que se pagan más tarde de los 40 días, lo que evidencia que la gestión ha empeorado y pide en nombre de BILDU que se respeten los plazos de pago.

Eduardo Andrade jaunak adierazten du txostenak web orrian argitaratuko direla eta herritarrak kudeaketen errealitatea egiaztatzera animatzen ditu. Talde Popularrak epean ordaintzea eskatzen du eta Gobernu-Taldeak bere kudeaketan egindako akatsik onartu ez izanaz kexatzen da.

Eduardo Andrade indica que los informes se van a publicar en la página web y anima a los vecinos a que comprueben la realidad de la gestión e insiste en que el Grupo Popular exige que se pague en plazo y lamenta que el Equipo de Gobierno no reconozca ningún error en su gestión.

Ana Helguera andreak esku-hartzen du Diruzainaren txostena, zati batean, azken araudia onartu aurretik egindakoa dela azpimarratzeko.

Ana Helguera interviene para insistir que el informe de la Tesorera parte no se ha realizado con la última normativa aprobada.

Proposamena bozkatzen da eta onartu egiten da EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen aldeko 12 eta PP eta BILDU taldeen 12

Sometida a votación es aprobada al obtener 12 votos a favor: PNV, PSE-EE, 12 abstenciones: PP, BILDU.

abstentzio-boto lortzean.

Horrenbestez Ogasun, Kontuetako, Ekonomia Sustapeneko, Giza Baliabideetako, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordeak proposatuta, honako hau adostu zen:

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

LEHENA: Udal Diruzaintzaren hiruhileko txostenaren eta Kontu Hartzaile Orokorrak egindako fakturen (2013ko 1. hiruhilekoa) zerrendaren berri jakitea. Horiek egin dira uztailaren 5eko 15/2010 Legeko laugarren eta bosgarren artikuluetan ezarritakoaren arabera; Lege horren bidez aldatu da abenduaren 29ko 3/2004 Legea, eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituena.

